# HERRIKO ALDIZKARIA

MAKEAKO HERRIKO ETXEA

Nº 36 - 2026KO UZTAILA




<u>AURKIBIDEA :</u>
- 3 : Auzapezaren hitza
- 4 : Kontseiluaren aurkezpena eta antolaketa
- 8 : 2026 ko aurrekontua
- 10 : Lan nagusiak
- 11 : Zikin bilketaren erreforma
- 12 : Pestak, ekitaldiak, 2026ko bigarren seihileko egutegia



# Auzapezaren hitza,

Makear agurgarriak,

Herriko aldizkari hunen bidez, kargualdi berri hunen lehen hilabeteko lanen eta gogoeten aurkezpena ukanen duzue.

Lehenik, nahi dauzkizuegu eskerrak eman hauteskundeetan egin harreragatik. Eskertzen ditut bereziki joan den martxoaren 15an bozkatu dituzten herritarrak, bai eta ere auzapez egin nauen talde osoa. Bozka egunerat hainbeste herritar hurbildurik erakusten du herriarentzat duzuen atxikimendua. Konfiantsa egiten dizkigutenek eskertzen ditugu, neurtzen baitugu hautetsi guziekin, gure engaiamenduaren ardura.

« Urtsu » etxe multzoko lehen eraikitzeko permisak onartuak izan dira, eta lehen lanak hasiko dira laster. Aldizkari hunen bidez parada ukanen duzue beste proiektu batzuen aitzinamendua ikusteko.

Nahi nituzke eskertu beriziki lehengoko kargualdiko hautetsiak, egindako lanarengatik, eta batez ere Alain Dubois, bere hautetsi bide luzearentzat (44 urte orotara, 18 urtez auzapez).

Talde berriarekin segituko dugu serioski lan egiten, herritarrak entzunez, Makeako eta makearren interesetan.

Irakurketa on.

Auzapeza,
Beñat SAINT ESTEBEN

<u>webgunea :</u> https://macaye.fr

<u>WhatsApp Infos Makea-Macaye taldea :</u> Herriko extearekin harremanetan jarri



MAKEAKO HERRIKO ETXEA
15 Laubordetako bidea - 64240 MAKEA
Tél.: 05.59.93.32.46
Mail: mairie@macaye.fr

- Astelehen, asteart, ostiral eta larunbatetan idekia goizean: 9:00 - 12:30
- Auzapezaren permanentzia astelehenero: 9:00 - 12:00 hitzorduz.
- <u>Hirigintza:</u> ostiral eta larunbatetan: 9:00 - 12:00 hitzorduz.

......................................

POSTA
29 Laubordetako bidea - 64240 MACAYE
Tél.: 05.59.15.60.02

Astelehen ostiral eta larunbatetan idekia (8 :30 - 12 :30) eta asteartean (14 :00 - 18 :00).

# Kontseiluaren aurkezpena eta antolaketa



**Beñat SAINT-ESTEBEN**
Auzapeza
– Hirigune elkargoko kontseilari (herriko ordezkaria Euskal Herriko hirigune elkargoan)
– Laborantza



**Thierry OTHARAN**
Lehen auzapezordea
– Hirigune elkargoko kontseilari ordezkoa (herriko ordezkari ordezkoa Euskal Herriko hirigune elkargoan)
– Komunikazioa
– Sare elektrikoa (TE 64), ura, helbideratzea, zuntz optikoa, numerikoa,
– Herriko apartamenduen kudeaketa



**Armelle OXARANGO**
Bigarren auzapezordea
– Finantzak, aurrekontua,
– Soziala, LEMALU



**Ramuntxo DUHART**
Hirugarren auzapezordea
– Batimenduak
– Lanen segipena eta herriko langileak
– Bideak



**Céline JORAJURIA**
Lehen ordezkaritza
– Hezkuntza
– SIVU Gure Eskola



**Bixente UHALDE**
Bigarren ordezkaritza
– Ingurumena eta hirigintza
– Kultura eta elkarte bizia



**Michel IRIBARREN**
Herriko kontseilari



**Denise ACHERITEGUY**
Herriko kontseilari



**Dominique BORDA**
Herriko kontseilari



**Laurence PULL INDART**
Herriko kontseilari



**Dominique OXOBY**
Herriko kontseilari



**Jérôme BIDEGARAY**
Herriko kontseilari



**Maryse HIRIGOYEN**
Herriko kontseilari



**Pantxika URGORRY**
Herriko kontseilari



**Kattin NOGUEZ**
Herriko kontseilari

# Kontseiluaren aurkezpena eta antolaketa

| Herriko etxeko komisioak | Gaitasunak | Arduraduna | Kideak |
|---|---|---|---|
| Aurrekontua – Finantzak | Finantza, zerga, mailegu eta diru laguntza aferak<br>Aurrekontu orokorra eta ondokoen prestaketa<br>Gastu eta diru sartzeen azterketa | Armelle Oxarango | - Thierry Otharan<br>- Ramuntxo Duhart<br>- Dominique Oxoby<br>- Jérôme Bidegaray |
| Batimenduak - bideak | Batimenduen eta bideen kudeaketa eta konpontze lanak (xedarratzea, arroil garbitzea, bide bazterren garbitzea, bideen berriz egitea) | Ramuntxo Duhart | - Dominique Borda<br>- Jérôme Bidegaray<br>- Thierry Otharan<br>- Michel Iribarren<br>- Bixente Uhalde |
| Herriko apartamenduen banaketa | Herriko apartamenduen alokailu kudeaketa (emaitea, sartze eta ateratze segipena, konpontze lanak ...) | Thierry Otharan | - Ramuntxo Duhart<br>- Kattin Noguez<br>- Armelle Oxarango<br>- Maryse Hirigoyen |
| Eskaintza deialdiak | Inbertsio garrantzitsuentzat, eskaintza deialdien prestaketa eta segipena | Armelle Oxarango | -Thierry Otharan<br>-Ramuntxo Duhart<br>-Dominique Oxoby<br>-Jérôme Bidegaray<br>- Denise Acheriteguy<br>- Michel Iribarren |
| Komunikazioa | Herriko aldizkaria, web gunea, multimedia | Thierry Otharan | - Bixente Uhalde<br>- Kattin Noguez<br>- Denise Acheriteguy<br>- Ramuntxo Duhart |
| Zerga zuzenak | Zerga administrazioaren proposamenak aztertu, zergen oinarria eta alokailu balorea kontutan hartuz<br>(12 personnes seront désignées au total sur 24 proposées à la DGFIP:<br>sont proposés -> 10 du conseil municipal : 5 titulaires + 5 suppléants<br>14 de la commune : 7 titulaires + 7 suppléants) | Beñat Saint Esteben | - Bixente Uhalde<br>- Thierry Otharan<br>- Michel Iribarren<br>- Jérôme Bidégaray<br>- Armelle Oxarango<br>- Laurence Indart (S)<br>- Céline Jorajuria (S)<br>- Maryse Hirigoyen (S)<br>- Dominique Oxoby (S)<br>- Kattin Noguez (S) |
| Herriko langileen segipena | Plangintza, egin-beharren hautatzea, urteko elkarrizketa | Ramuntxo Duhart et Céline Jorajuria | |

# Kontseiluaren aurkezpena eta antolaketa

| Herriko etxeko komisioak | Gaitasunak | Arduraduna | Kideak |
|---|---|---|---|
| Eskolako kontseilua – SIVU Gure Eskola | Eskola publikoaren kudeaketa, SIVUren segipena<br>(Présidence à Macaye ce mandat) | Céline Jorajuria | - Armelle Oxarango<br>- Pantxika Urgorry |
| LEMALU | LEMALU aisialdi zentroaren kudeaketa | Armelle Oxarango | - Laurence Indart<br>- Bixente Uhalde<br>- Maryse Hirigoyen<br>- Pantxika Urgorry<br>- Kattin Noguez |
| Sare elektrikoa (TE64 ordezkari) | Sare elektrikoaren luzatze eta azkartzeak | Thierry Otharan | - Bixente Uhalde |
| Bozetako lista | Bozetako listaren eguneratzea<br>(Le maire désigne 4 personnes de la commune hors conseil municipal. Organe qui permet de contrôler les radiations et inscriptions proposées par le Maire) | Jérôme Bidegaray | |
| Kultura eta kirola / Euskal kulturaren sustengua Soziala eta elkartasuna / Bestak eta ekitaldiak | Herriko elkarteen bizia, kirola eta kultura ekitaldiak, herriko bizia, hizkuntza eta euskal kultura<br>Adineko biztanleak (bazkari eta afari ekartzeak/urte bukaerako oparia) | Bixente Uhalde | - Laurence Indart<br>- Pantxika Urgorry<br>- Denise Acheriteguy<br>- Ramuntxo Duhart<br>- Kattin Noguez<br>- Céline Jorajuria<br>- Maryse Hirigoyen |
| Laborantza – AFP – Gaztaina – Baigura Mendi elkartea | Laborantza diagnostika, AFP, Makeako saskia | Ramuntxo Duhart | - Dominique Borda<br>- Michel Iribarren<br>- Céline Jorajuria<br>- Laurence Indart<br>- Bixente Uhalde<br>- Denise Acheriteguy |
| Militar defentsa ordezkaria | Defentsarako harremanetan den pertsona, autoritateak eta militarren arteko lotura egiten duena | Thierry Otharan | |

# Kontseiluaren aurkezpena eta antolaketa

| Herriko etxeko komisioak | Gaitasunak | Arduraduna | Kideak |
|---|---|---|---|
| Hirigintza | Hirigintza, etxeak, ofizialeak, lurrak, ingurumena | Bixente Uhalde | - Thierry Otharan<br>- Ramuntxo Duhart<br>- Dominique Borda<br>- Dominique Oxoby<br>- Jérôme Bidegaray<br>- Denise Acheriteguy<br>- Kattin Noguez<br>- Michel Iribarren |
| Herri salbatze plana | Herritarren seguritatea bermatzen duen herriko salbatze plana (tenpestak, suteak, uholdeak ...) | Beñat Saint-Esteben | |
| Hilerria | Betiereko hilobi kontsezioen kudeaketa eta hilobi guzien identifikazioa<br>Hilerriaren araudiaren kudeaketa | Armelle Oxarango | - Denise Acheriteguy<br>- Laurence Indart<br>- Pantxika Urgorry<br>- Céline Jorajuria<br>- Maryse Hirigoyen |
| CLECT | Transferatuko karguen ebaluazio tokiko komisioa<br>Komisio hunek aztertzen ditu hirigune lekargoari transferatutako konpetentzien arabera, diru transferentzaik herrietatik elkargora eta elkargotik herrietara. | Thierry Otharan | - Bixente Uhalde |
| Asegurantza gehigarria | Herriko asegurantza gehigarri baten plantan jartzeko ikerketa | Denise Acheriteguy | - Dominique Oxoby<br>- Bixente Uhalde<br>- Armelle Oxarango<br>- Michel Iribarren |
| Hondarkinak | Hondarkinen arduraduna | Thierry Otharan | |

# Aurrekontua : 2026ko funtzionamendu errezetak

| | | |
|---|---|---|
| | PRODUITS DES SERVICES DU DOMAINE ET VENTE | 37 046,00 € |
| | - Divers | 1 875,00 € |
| | - Agence postale | 14 532,00 € |
| | - Mise à disposition du personnel (CCAS, LEMALU) | 20 639,00 € |
| | IMPOTS ET TAXES | 364 082,00 € |
| | - Attribution de compensation | 150 707,00 € |
| | - FNGIR (Fond National de Garantie Individuelle des Ressources) | 61 688,00 € |
| | - Impôts directs (Impôts locaux) | 138 540,00 € |
| | - Taxe sur la compensation finale d'électricité | 11 246,00 € |
| | - Taxe exploitation infrastructures de transport | 1 901,00 € |
| | DOTATIONS, SUBVENTIONS ET PARTICIPATIONS | 123 153,78 € |
| | AUTRES PRODUITS ET GESTION COURANTE (loyers appartements, élagage) | 55 490,00 € |
| | TOTAL RECETTES FONCTIONNEMENT | 579 771,78 € |
| | | |
| | RÉSULTAT DE FONCTIONNEMENT REPORTE | 117 273,70 € |
| | TOTAL RECETTES + FONCTIONNEMENT REPORTE | 697 045,48 € |



# Aurrekontua : 2026ko funtzionamendu gastuak

| | | |
|---|---|---|
| | CHARGES A CARACTÈRE GÉNÉRAL | 169 746,34 € |
| | - Énergie, Électricité, Eau-assainissement, Carburants-Combustible | 27 657,77 € |
| | - Bâtiments, Voies et réseaux, bois et forêts | 73 600,00 € |
| | - Assurances, honoraires | 15 778,57 € |
| | - Contrats prestations de services | 7 500,00 € |
| | - Fournitures d'entretien et de petits équipements | 10 550,00 € |
| | - Frais divers (administratif, maintenance, communication, taxes) | 34 660,00 € |
| | DEPENSES DE PERSONNEL ET COTISATIONS | 165 245,00 € |
| | AUTRES CHARGES DE GESTION COURANTE | 138 447,23 € |
| | - Indemnités, cotisations Maire et adjoints, formations | 39 000,00 € |
| | - Autres contributions obligatoires | 60 000,00 € |
| | - Subventions | 37 444,23 € |
| | - Location logiciels et site internet | 2 000,00 € |
| | - Autres | 3,00 € |
| | INTÉRÊTS DES EMPRUNTS | 15 371,06 € |
| | AMORTISSEMENTS | 12 656,48 € |
| | TOTAL DÉPENSES FONCTIONNEMENT | 501 466,11 € |
| | | |
| | VIREMENT A LA SECTION D'INVESTISSEMENT | 195 579,37 € |
| | TOTAL DÉPENSES FONCTIONNEMENT + VIREMENT A LA SECTION D'INVESTISSEMENT | 697 045,48 € |




2026ko aurrekontu arrunta orekatua da 697 045,48€.

# Herriko lan nagusiak

Azken urte hauen herriko lan gottorrak izan dira elizaren berritza eta Urtsu etxe multzoaren antolaketa. Hautetsi berrien arteko « Herriko lanak » komisioa bildu da, herriko lanen egutegi bat egiteko.

Herriko plazaren berritzea izanen da herriko etxeak eramanen duen lehen lana. Lanen artean izanen da murruen tindua (pilota plaza, aldagelak eta armailak), pilota plazako murru gaineko hesiaren berritzea eta batez ere armailen berritzea segurtasunean erabiltzeko gisan. Gaineko barandaren berritzea eta erdiko eskaileren segurtasunezko baranda baten plantan jartzea edukiko dute armailen lanek. Bestalde plazako argiak arraberrituak izanen dira osoki. Azkenik landare batzuk ezarriak izanen dira plazaren gaineko partean.
Ondotik, grafititzaile baten bidez, marrazki bat tindatua izanen da aldageletako murruan. Enpresa desberdinak kontsultatu eta, haien proposamenak azterturik, urri huntan hasiko dira lanak. Lanen aurrekontua 65 000 €-koa da, estatuak eta hirigune elkargoak orotara 41 329 € laguntza ekartzen dutelarik.

Beste lan batzu oraindik ikerketa fasean dira, bereziki apezetxearen berritzea, zubien berritzea, eta herriko etxeko maiasturuntzen berritzea. 2027 urte hastapenean herriko zoinbait bideren berritzea hasiko da. Urte oroz bezala, herriko etxeak proposatuko du bide bazterreko jabeeri, bide bazterreko abarren moztea.

Herriko web gunearen berritzea bultzatua izan da, 2027tik goiti ikusgai izanen da. Arraberritze horrek 3840 €-ko kostua du,%50 lagundua delarik.



# Zikin bilketaren erreforma

Bilketa gune berriak martxan ezarriak dira Hazparnealdean, hondakinen bilketa eraginkorragoa eta iraunkorragoa izan dadin. Hondakinen bilketa zerbitzuaren berrantolaketaren helburua lurperatutako hondakinen kopurua murriztea da eta konpostatzearen, birziklatzearen eta berrerabilpenaren bidez hondakinak balorizatzea.
2026ko martxoaren 30etik goiti, MAKEAko hondakinen bilketa herrian zehar antolatu biltoki berrietan egina da. Etxeko hondakinak botatzeko, herritarrek urririk eskuragarri den ezgugailu bat beharko dute.

Bilketa sistema berria :
Etxeko hondakin eta birziklatzeko gurpildun-zakarrontzi zaharren ordez, bilketa gune berriak ba dira. Gune bakotxak eguneroko hondakinak (etxe-hondakinak, estalkiak eta paperak nahasirik eta berina) botatzeko edukiontziak badituzte :
• Etxe-hondakinendako edukiontziak: ezagugailuen bidez bakarrik idekitzen ahal dira, eta 50 edo 80 litroko zakuak (hetsiak) botatzeko aukera ematen dute.
• Estalki eta paper birziklagarriendako edukiontziak: denen eskura, zakurik gabe gai bakotxa banaka botatzeko aukera emaiten dute.
• Berinarendako edukiontziak: denen eskura, zakurik gabe berinak banaka botatzeko aukera emaiten dute.

Bilketa punduen kokapenak jakiteko :
- https://www.communaute-paysbasque.fr (onglet Déchets/ Les points de tri)
- https://www.communaute-paysbasque.fr/dechets
- https://www.communaute-paysbasque.fr/dechets/les-points-de-tri

Berezketari eta bilketari lotutako galderentzat **edo ezagugailuen eskuratzeko**, hondakinen zerbitzuarekin harremanetan sar zaitez :
- telefonatuz: 05 59 57 11 80
- idatziz: dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr
- ostiral guziz 14:00etatik 17:00etara permanentziak badira, Hazparneko Elkargo-Etxean (54 Francis Jammes karrikan, Caisse d'Epargne bankuaren gibelean)
















**Larunbata, uztailaren 18a**

Ball Trap Mokorretan ACCA Makearrak antolaturik

**Osteguna, uztailaren 23a**

20h00 : JOSTAKIN-en gaualdia : antzerki eta kantu jostakin elkarteak emanik

**Ostirala, uztailaren 24a**

19:00 : Zikiroa Utxaranga eta Holako Deluxe taldeek alaiturik ! **20€**.

**Larunbata, uztailaren 25a**

15h00 : Haurren jokoak - egurrezko jokoak, puzgarriak ...
17:00 : Pilota partida Mindegian.
20:00 : Pintxo-poteo Kalume txarangarekin.
22:00 : Kontzertuak : MASKAK et TREMENDA JAURIA.
02h00 : FRIGO.

Jatekoa Baigura ikastolak eginik.

**Igandea, uztailaren 26a**

10:30 : Meza nagusia Makeako elizan Ganixtarrak alaiturik, ondotik bazkaria OGIBARNIA ostatuan
17:00 : Dantza ikusgarria "eta orai zer ?" Txingili'K dantza taldeak emanik. 17:45 : Talo eta xingar Ganixtarrak elkarteak proposaturik.
18:00 : Gaitixtaneko Orkestra, 19:30 : Naxker, 21:00 : Dizkobolo, 23:00 : Urgotxx

**Astelehena, uztailaren 27a**

Herritarren eguna Mindegian Atzarbalek alaiturik

**Erreserbak : 06 78 16 85 36 uztailaren 20a aintzin**

20:00 : Gaualdia Bidegaray ostatuan Andoni Oilokiegi-ekin

makeako laborariak

# Makeako laborariak, 2026ko Gasnaren Pesta

Egun on deneri !

2026an berriz heldu zaugu Gasnaren pesta Agorrilaren 21an ostiralarekin !
Aurten aldaketa nagusi bat izanen da : jastatze poloak desagertuko dira eta dena merkatu gisa antolatuko dugu. Ekoizle ezberdinek haien mozkinez gain, gasnarekin egin platerak proposatuko dauzkitzuete.
Eguerditan lekuko sukaldariek prestaturiko pintxo ezin hobeak salgai izanen dira !
Horrez gain, usaiako animazioak izanen dira : AOP ardi gasna txapelketa, etxalde bisita, pilota partida, gasna egitea, ardi moxtea, artzainen lasterkaldia etab. Eguna bukatzeko zikiroa ogitartean animaturik eta artzain xakur txapelketa.
Holako egunak ez baitira laguntzailerik gabe antolatzen ahal, gutun bat bidalia izanen da herritar guzieri laguntzaile izaiteko. Denak gomit zirezte !

Aitzinetik milesker,

Makeako laborariak








Makea Oinez ekitaldean parte hartu nahi dutenenzat (prestaketa, balizatu, hornitzea, altxatu...) ez duda gurekin harremanetan sartzea : makeaoinezmacaye@gmail.com.

**Kantaldi Makeako elizan, 2026eko azaroaren 22an**

Berriz Aintzina elkarteak proposatzen dizue KANTALDI bat 2026eko azaroaren 22 ean , igandearekin, Makeako elizan. Entzuten ahalko dituzue talde hauek : Bayonne polyphonie, Bost Axola et Ikusiko.

**2026KO BIGARREN SEIHILEKO EGUTEGIA**

- Ball Trap : larunbatean, uztailaren 18a
- Makeako pestak : uztailaren 22tik 27a arte
- Gasnaren Pesta : ostiralean, agorrilaren 21a
- Urtsu auzoaren bazkaria : larunbatean, agorrilaren 29a
- Poxeluko pusken bilketa : ostiralean, buruilaren 4a
- Makea Oinez : igandean, buruilaren 27a
- Kermeza : igandean, urriaren 4a
- Eskolako lotoa : igandean, urriaren 18a
- Palestinaren eguna : larunbatean, azaroaren 14a
- Kantaldi Berriz Aintzina : igandean, azaroaren 22a
- Poxeluko pusken bilketa : ostiralean, abenduaren 4a
- Mus txapelketa Ganixtarrak : igandean, abenduaren 6a



